

HERRI ANTOLAMENDUA

HERRI HEZITZAILEAREN IKUSPEGITIK



HIRITIK AT



8

- Herri Hezitzailea lantaldea:

Irrien lagunak kluba, Plisti Plasta, Hik Hasi pedagogia-ekimena, Oarsoaldeko Garapen Agentzia, Topagunea, Zirimola -Ikastolen Aisialdi taldea, Artaziak Kooperatiba, Tabakalera-Hezkuntza taldea, Arrasateko Txatxilipurdi euskara eta aisialdiko elkarte, Bizkaiko Urtxintxa eskola, Arremanitz Kooperatiba, Elgoibarko Izarra, Ttakun Kultur Elkarte, Hiruki Larroxa, Urtxintxa Gipuzkoa, Kokoriko Aiaraldeako ekintzen faktoria.

- Koaderno honen egilea:

Hiritik-At eta Oinherri

- Laguntzaileak:

Alfredo Hoyuelos eta Lorea Agirre

- Maketazioa eta ilustrazioak:

Eñaut Aiertzagüena Bravo

-Argazkiak:

Txatxilipurdi euskara eta aisialdiko elkarte eta Plisti Plasta.

- Inprenta:

Gertu inprimategia

- Babesleak:

Kutxa fundazioa

- Bildumaren ISBN:

978-84-606-672-6

- Ale honen ISBN:

978-84-09-38627-7

Esku artean duzun liburuxka hau eraikuntza kolektibo bat izan da. Hiritik-At eta Oinherri herri hezitzaileak sustatzeko elkarteko kideek, elkarrekin eta elkarrengandik ikasiz sortu duguna.

Urteak daramatzagu Euskal Herri luze zabalean prozesu parte hartzaileak sustatzen. Esperientzia horietako bakoitzean bizitakoak eta ikasitakoek, parkeak modu parte hartzailean eraldatuzetik haratago joateko nahia eta beharra sortu dizkigu. Herri antolamedu osoa, herri hezitzailearen ikuspegitik berrantolatzeko nahia eta beharra.

Hezkuntza eta hirigintza, lehen begirada batean elkarrengandik urrun egon daitezkeen bi lan arlo, bi egiteko modu ezberdin bezala ikusten badira ere, elkartu eta elkarrekin herriak antolatzeko eredu berri bat osatu dugu.


Hezkuntza, bere modu zabalean hartuta, pertsonak, ingurua eta mundua begiratzeko eta bizitzeko dugun modua eraldatzeko garatu beharreko prozesuaren gako garrantzitsuenetako bat da. Beraz, gure herri eta herri-tartasunari esanahi berri bat ematea proposatzen dugu hezkuntzatik.

Bizitzak erdigunean jarriko dituen hirigintza eredu parte hartzaile baterako gakoak bildu ditugu liburuxka honean. Paradigma aldaketa ekar dezakeen politika publikoak egiteko modu publiko komunitarioa proposatuz, udalgintza eraldatzailea eta herrigintza hezitzailea sustatzeko.

AURKIBIDEA



- SARRERA	8
- OINARRI IDEOLOGIKOAK	14
1. <i>Herri Hezitzaile baten printzipioak Herri Antolaketan</i>	14
2. <i>Zaugarrien neurrira egindako herri bat, elkarbizikidetasunaren herri hezitzailea</i>	16
3. <i>Hautzaroaren kultura: kultura eraldatzailea</i>	22
4. <i>Loturen herrialdea eta lurraldea</i>	24
5. <i>Herri Antolaketa hezitzailearen ezaugarritzea</i>	26
6. <i>Lurraldetasuna udalgintzatik</i>	28
- UDALEKIN ELKARLANEAN ARITZEKO AUKERAKO EKINTZAK	36
2.1. <i>Zer egin?</i>	
2.2. <i>Nola egin?</i>	
2.3. <i>Tresnak</i>	
- PROIEKTU FITXA	52
- EZ-ONDORIOAK	56



SARRERA

Hezkuntza da, edo hala izatea gus-tatuko litzaiguke, **edozein eraldaketa prozesuren gako garrantzitsuene-tako bat**. Hezkuntzak aukera ematen digu gure munduaren ikuskera zabal-tzeko eta, ulermenetik eta hausnarke-tatik abiatuta, inguru hurbila (auzoa, herria, eskualdea), jendartea eta mun-dua ulertu eta aldatzeko. Testuinguru honetan erronka konplexuen inguruko proposamenak eraiki ditzakegu hezkun-tzatik. Izan ere, hori da hezkuntzaren egitekoa: proposamen eta erantzun be-riak sortzea, eta eraldaketa sustatzea.

Espazioa eta espazioa bera antolatze-ko modua elementu hezitzaileak dira.

Bizi garen herriak inoiz ez dira izan neutroak. **Sistema kapitalista-neoli-beral-patriarkal baten beharrei eran-tzuteko diseinatuak izan ziren**, eta ondorioz, sistema kapitalista-neolibe-ral-patriarkalaren balioetan hezten gai-tuzte. Horregatik beharrezkoa ikusten dugu, lan produktiboa eta merkatuaren beharren arabera diseinatzen den he-rri antolamendu batetik, lurraldean bizi garen pertsonen beharrak asetzera bideratutako herri eredu baterantz igarotzea. Herrien antolamendua, zaintza lanak lan produktiboen aurretik jarri eta pertsonen bizitzak erdigunean jarriko dituen ikuspuntu batetik planifikatzea, ezinbestekoa izango da bestelako ba-


lio batzuetan heziko duten herri hezi-tzaileak eraiki nahi baditugu. Hiritik At kooperatibak eta Oinherri herri hezitzaileak sustatzeko elkartearen helburua, lanketa kolektiboan, hori lortzeko gako batzuk identifikatzea izan da.

Hezkuntza, bere zentzurik zabalenean hartuta, **herri proiektu bat garatzeko tresna dela aldarrikatu nahi dugu**. Elkarrizketa politikoa, estrukturala eta soziala sustatzeko tresna dela hain justu. Herrien antolamendua planifikatze-rakoan, hezkuntza irizpide bilakatzea proposatzen dugu, udalgintza eralda-tzailea hezkuntzatik hirigintzara eta hi-ri-gintzatik hezkuntzara hedatuz, bizitza

eta **herria eskola iraunkor gisa bizi-tzen hasteko. Bizikidetasunaren es-kola, herritar ororentzako eskola izan-go dena**. Hau da: herria HEZKUNTZA letra larriz idatzita landuko duen eskola bihurtzea. HEZKUNTZA esaten dugu-nean, ez gara ari lau pareten artean ematen diren edukiez. Hezkuntza ikas-tetxean, eskolaz kanpoko jardueretan zein etxean edota kalean ematen da eta horregatik bere luze-zabalean uler-tzea dugu xede. Gutako bakoitzaren egunerokotasunean gertueneko espazio fisikoan gertatzen den horri erantzuteko gai izango diren herriak eraiki nahi ditugu. Alegia, bizitzak bizigarri egite-ko espazio eta denbora tarte horietan sortzen diren erronkei erantzuteko gai izango diren herriak.

Herriak txikitasunetik, haurrak ematen digun neurri politikotik eta eguneroko-tasunetik birpentsatzeko gonbidapen bat da eskuartean daukazun liburuxka hau. Egunerokoan gertatzen baitira gauzarik garrantzitsuenak eta esangu-

“Herrien antolamendua, zaintza lanak lan produktiboen aurretik jarri eta pertsonen bizitzak erdigunean jarriko dituen ikuspuntu batetik planifikatzea ezinbestekoa izango da”



ratsuenak. Eta, dagoeneko, jakin bada-kigu, egunerokoan gertatzen zaizkigun gauza pertsonalak politikoak ere badairela. Herriak goitik behera begiratu eta goitik behera eraikitzeko tresnekin jardun izan gara hirigintzan gehiegitan. Goazen behetik gorako herri eredu berri bat eraikitzera. Hankak kalean jarrita, eguneroko erronkak kontuan hartuz eta ortzi-mugan herri eredu jasangarri bat irudikatuz.

Argi daukagu HEZKUNTZAn onena iristeko dagoela: lurraldearekin harreman zuzena izango duten hezkuntza proiektuak; hurbilekoak baina ikuspegi globala kontuan izango dutenak; eta interes partikularretatik abiatuz, ongizate kolektiboa helburu izango dutenak. Hori dena eraikitzeko baldintza egokiak ikusten ditugu gure lurraldean. Familia, eskola eta herriaren arteko ekosistema, egitura publiko komunitario eta parte-hartzaileetan oinarrituko diren Herri Hezitzaileak sortzeko. Herritartasun proiektu komun bat, azken finean, heziketa prozesu iraunkor, partekatu, konplexu eta diziplinarteko bat osatzeko. Ez da lelo politiko bat, ezta eduki kurrikular bat ere. Hori ere bada, baina, bereziki, parte-hartzearen eta ekintza sozialaren aldeko ekintza politikoa da.

Utopia no es una isla liburuan **Layla Martinezek** dio **ametsena dela gertzen zaigun lurralde libre bakarra eta, horrenbestez, amestera kondenatuta gaudenez, amets egitera gonbidatu nahi zaitugu**. Etorkizun distopikoak soilik posible direla sinestarazi nahi duguten garaiotan, inoiz baino beharrezkoagoa dugulako etorkizun utopikoak eraikitzen hastea. Marko apokaliptikoek gehiegizko erruduntasun sentimendua sortzen digute, eta horrek paralizatu egin ohi gaitu. **“Etorkizunean itxaropena izan behar dugu, gauzak ongi aterako direnaren esperantza, baina ez berez iritsiko denaren esperantza, itxaropen aktiboa baizik; gure ekimenez gauzak aldatzea lortuko dugunaren itxaropena, alegia”**. **Yayo Herreroren** aktibista ekofeministaren hitzekin bat egiten dugu. Eskuartean daukazu liburuxka honekin gurekin batera amestera gonbidatu nahi zaitugu. Beste herri eredu bat posible dela amestera, eta hala izan dadin ekitera. ■

“Goazen behetik gorako herri eredu berri bat eraikitzera. Hankak kalean jarrita, eguneroko erronkak kontuan hartuz eta ortzi-mugan herri eredu jasangarri bat irudikatuz.”



OINARRI IDEOLOGIKOA

1. Herri hezitzaile baten printzipioak herri antolaketan

Oinherri ekimenetik zazpi oinarri edo ideia-giltzarritan oinarritzen den hezkuntza eta aisia eredu bat proposatzen dugu, zazpi kontzeptutan oinarritzen den herri eredu bat horrenbestean. Zazpi eremu horiek elkar garatzen dira eta elkar aberasten dute, zentzu holistikoa osatze aldera. Eta, beraz, halabarrez denak elkarrekin joatearen garrantzia azpimarratu nahi dugu.

- **Jolasa eta haurtzaroaren kultura**
- **Parte-hartzea eta erabakitze-ahalmena**
- **Euskara**
- **Aniztasuna eta bizikidetasuna**
- **Feminismoa**
- **Natur eta kultur ondarea**
- **Komunitate sarea, auzolana, eta herrigintza**

Zerrendatutako 7 kontzeptu horiek oinarritzat hartuz, gure lan-eremua eta xedea horrela definitzen ditugu:

Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen haurren kultura aitortzea; hori oinarri hartuta, haurrei euren komunitatea eta herria

hobetzeko proiektu eta ekimenetan benetan parte hartzeko eta erabakitze-ko ahalmena ematea; eurek eraikitako aisia hezitzaile eta euskaldunaren bitartez aniztasunean berdin eta parekide izanez eta ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana indartzea, eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea.

Baieztapen tesi horrek bizi garen leku geografikoan hartzen du lur, geure auzo, herri eta hirietan, ez dago airean; eta auzo, herri, hiriak zer nolakoak eta zertarako izan behar duten pentsatzeko iparrorratz egoki bat eman diezaiguke, zeren eta ze hodeiertz izan desiragarri, halako herri antolamendua izango dugu. Horregatik du berebiziko garrantzia gure txoko eta bazterrak modu egokian eta koherentean antolatzeak.

Lurraldea antolatzeko bi dimentsio nagusi hartzen ditugu kontuan. Batetik, **hirigintza** deitu ohi dioguna: lurraldearen orografiak eta horren gainean egindako interbentzio materialek osatzen dutena; eta, bestetik, berri, **herrigintza** deitu ohi dioguna: lurralde horretako norbanako zein kolektiboen arteko harremanak barnebiltzen dituen. Eta, ondoren bi dimentsio horien arteko uztarketa dator: lurralde jakin horretan gertatzen diren harreman eta interakzioen elkarrekintza.

Eta joko zelai horretan kokatzen dugu herritar guztien ongizatea ahalbidetzeko Herri Hezitzailearen filosofiaren zazpi printzipioen arabera bizi eta garatuko den herri antolaketa eredu berria eraikitze-ko ahalegin hau. Izan ere, lurraldea gizarte osoaren eskura dagoen lekua da, pertsona guztiona da. Pertsonak ardatz dituen herri batean espazio publikoa funtsezkoa da, bertan ematen baitira gizarte interakzioa eta komunitate zentzua eraikitze-ko aukerak.

Lurralde antolaketaren helburu nagusi eta garrantzitsuenetako bat erabilera eta erabiltzaileari egokitzea da. Izan ere, herri antolaketa gure komunitatearen kulturaren erakuslea da, eguneroko interakzioen agertokia eta jardueren euskarri fisikoa.

Gure auzo, herri eta hirien antolamendu eta diseinuak eragin zuzena du gure egunerokotasunean, gure eguneroko bizitzan. Ekipamenduetarako sarbidea, herriko mugikortasuna edo espazio publikoen konfigurazioa biztanleen garapenaren baldintzatzaile bihurtu dira. Ondorioz, herria ohiko gogoeta bihurtu da hainbat arlotan: genero berdintasunean, haurtzaroan, nerabezaroan, zahartzaroan...

Ez dago herria diseinatu eta antolatzeko eredu unibertsalik. Eskala eta oinarritzako beharrak uztartuz eratu behar da, konplexutasunetik eta aniztasunetik abiatuta, herrietan eguneroko bizitza sortzen parte hartzen duten askotariko pertsonen aberastasunari erantzun egoki bat emateko.



2. Zaurgarrienen neurrira egindako herri bat, bizikidetasunaren herri hezitzailea

Zaurgarrienen neurrira egindako gizarte izango da benetan denontzako gizarte askotariko, justu eta bizigarria.


Jane Jacobs kazetari, hiri teoriko eta aktibista soziopolitikoaren esanetan, **“pertsona guztiontzat sortzen direnean bakarrik dute hiriek pertsona guztioi zerbait emateko gaitasuna”**. Hori horrela, herritarren beharrian eta interes desberdinak dituzten taldeen ahotsa eta ikuspuntuak aintzat hartzen ez badira ikuspegi partziala ezartzen da, eta horrek bizitza zailtzen die kontuan hartu ez diren guztiei. Normalean hierarkia sozialetan kolektibo zaurgarriena izaten dira horiek, bazterrean uzten direnak, gizartearen gehiengoa osatzen dutenak, alegia: emakumeak, haurrak, nerabeak, adinekoak, gaixotasunen bat pairatzen dutenak, gutxiengo kultural edo nazionalak, gutxiengo linguistikoak, baliabide ekonomiko, kultural edo politiko gutxien dutenak.

Jacobs eta **Francesco Tonucci** pedagogo italiarra auzo-herri-hiri inklusiboaren oinarrietan guztiz bat datoz. Tonuccik honela arrazoitzen du: **“Jakina, haur eta gaztetxoentzat proposatzen dugun horrek hiritar guztientzat balio du: hirugarren adinekoentzat, gaixotasun fisiko eta psikikoak dituztenentzat, gazteentzat, beste ko-**

munitateetako jendearentzat. Berriro ere haur eta gaztetxoek erakusten digute bidea egiten, eta guztiontzat berme da haur eta gaztetxoak kontuan hartzea”.

Jacobs zein Tonucciren esanetan, egungo herri eredu bizitza kapitalista finantzario produktiboari erantzuteko izan da sortua, hau da, gizon-zuri-lan-gile-kotxedunaren erosotasunaren zerbitzura eraikia. Jane Darke geografo feministaren arabera, “asentamendu oro da eraikitzen duen jendartearen harreman ereduaren inskribatze bat espazioan... Gure hiriak patriarkatua dira, harriz, adreiluz, beiraz eta hormigoiez idatzita”. Hiri eta bizikera eredu horrek gizartearen zati bat baino ez du asetzen; jendartearen beste zati handi batek, aurrekoa baino handiagoa denak, kontuan hartu ez diren beste behar batzuk dituelako espazio publikoan. Adinekoek eta haurrek, esaterako, etxetik berrehun metrora autonomiaz mugitu ahal izateko eta beren zaintzaz arduratzen diren pertsonen bizitza errazteko, gizarteratzeko, esertzeko eta jolasteko

“Herri Antolamenduaren eginkizuna da bizitzaren edozein fasetarako, haurtzarotik hasita eta zahartzarora arte, giro hezitzaile egokia ematea.”



espazio publiko egokiak izan behar dituzte, urteko klimatologiari egokitutako lekuetan.

Herri antolamenduaren eginkizuna da bizitzaren edozein fasetarako, haurtzarotik hasi eta zahartzarora arte, giro hezitzaile egokia ematea. Gure bizitzako garai bakoitzak berariazko eskakizunak ditu, eta eskakizun horiek era koordinatuan kontuan hartzea ezinbestekoa da.

Hezitzailea den herria bere antolamenduan prozesu pedagogikoak eta inklusioa oinarritzat hartzen dituen herria da, herria egiteko modu integral bat


duena. Pedagogia tresna gisa hartuta, izaera osoko haur, gazte eta helduak (herritarrak) sustatzen dituen logika da. **Herria egitura estankoa denaren us-tea gainditu, eta eraikuntza prozesu bat dela sinestea da gakoa.**

Herriaren eraikuntza-prozesu sozial horretan inklusiotik bizikidetasunera jauzi kualitatibo bat ematea proposatzen dugu. Herri antolamendua inklusioaren prisma eraiki beharrean, aniztasunaren bizikidetzarako modu berriak birpentsatzea proposatzen dugu. Bizikidetasunaren bidez, **Denise Najmanovich** pentsalari argentinarrek planteatzen duen moduan, inklusioa vs eskusioa

binomioa gainditu eta aniztasunaren bizikidetzari beste begi batzuekin begiratzea proposatu nahi dugu.

Pentsatu, sentitu eta ekiteko beste bizi ikuspegi bat garatzea da asmoa, beraz. Hau da: **bizikidetasunarena. Zergatik inklusiotik harago joan behar hau?** Sarritan gertatu ohi da, inklusioaren izenean talde bat integra arazten dela, baina behin integratuta talde baztertu izaten jarraitzen duela, izan ere, marginal gisa egin ohi zaielako lekua. Hau da, barrurantz segregatuak dira. Eta, ondorioz, beti izango dira, integratu gabe edo intergratuta, talde margina-tua eta berezitua.

Zenbait esperientziak adierazten diguten moduan, egungo jendartearen barnebildu izan diren kasu gehienak baztertuak ere izan dira, marjinatu moduan integratuak edota barrurantz segregatuak. Alegia, inklusioa jendarte justua-go bat eraikitzeako orduan aurrerapau-so nabarmena izan bada ere, inolaz ere ez du jendartearen sailkatzeko eredia gainditzen, gizona, emakumea, ezin-dua... eta bestelako arketipoak kutzaz aldatu besterik ez baititu egiten. Hori argi ikus daiteke ondorengo grafikoan:



Inklusioaren lorpenik handiena izan da integrazioa barrurantzko segregazio mota bat bezala aplikatu dela ikusaraztea. Hala ere, pertsonak euren izaeraren ezaugarri bakar baten arabera sailkatzen jarraitzen du, gutako bakoitzaren existentziaren izaera askotariko eta aldakorrek kontuan izan gabe. Irudian ikus dezakegun moduan, pertsonak kategoriatu bakar baten barruan edo kanpoan soilik egon daitezke. Ez dago izaki errepikaezin singularrik, mota edota estereotipoak baizik. **Ez dago taldekide izateko askotariko modurik; edo barruan edo kanpoan zaude, eta pertsona mota bakoitzaren barruan homogeneizazioa gailentzen da.** Ez dago lekurik berezitasunentzat, aniztasunarentzat eta eraldaketarentzat. Iruditegi honetan ez dira izateko modu askotarikoak islatzen, ez da bizitza kabitzen.

Hori guztia gure jendartearen arautzat hartzen den arketipo batean antolatu eta eraikitzen delako gertatzen da. Norma moduan definitua izan den arketipo horren iruditeria jarrera guztien atzean ezkutatu da, ekintzak epaitzeko, sentimendu bakoitza aztertzeko eta arrazoibide bakoitza marko hertsia bilakatzeko. Garen tasun guzti horiek, arau moduan definitu den patroira makurtzeko/murritzeko, finean. Norma den ideal honen kategoriarekin amaitu ezean, ezinezkoa izango da desberdin-

tasun sozialekin amaitzea, normaren baitan normala dena existitzen den bitartean, normala ez dena ere existituko delako. Ondorioz, normalizazioaren ikurraren pean garatuko ez den inklusio konfigurazio berri bat behar dugu: bizikidetasunarena.

Alabaina, jakin badakigu pentsamendu eta praktika normalizatzaileak ez direla jendarte honen xehetasun, zailtasun edota gainditu beharreko oztopo soilak. Normalizazioa, konparazioa eta konpetentziak gizarte neoliberal eta patriarkalaren egituraren muina dira. Egiturazkoak bai, baina eraikuntza sozialak, funtsean. Eta eraiki daitekeena deseraiki egin daiteke. Horretarako, ordea, ezinbestean ikasia (des)ikasi beharko dugu, **inklusioa vs esklusioa mugatzen duen dikotomiaren estetika eta etiketik atera, jendartearen parte izateko modu desberdinak birpentsatu, eta elkarrekin bizitzeko modu berriak planteatu.**

Aniztasunaren bizikidetasun oso bat ezinezkoa izango da eraikuntza indibidualista eta lehiakorren oinarritutako sistema batean. Beraz, sistema eraldatu beharko da, horretarako sistemaren parte garen pertsonak aldatuz. **Caetano Veloso** musikari eta aktibista brasildarraren hitzetan, iraultza norbanakoan hasten delako eta gertutik inor ez garelako normalak, denak garelako bereziak.

Irudian argi ikusten den moduan, orain arte jendartea antolatzeko kaxen metafora erabili izan da. Metaforek definitzen dituzte markoak eta elikatzen dute gure iruditeria. Ez da nahikoa izango marko berri bat eraikitzea, kaxen ordeztelako metafora bat erabiltzea. Elkarrekin bizitzeko forma dinamikoa ireki berri bat eraiki behar da, ez kaxen barruan

eta ezta kaxen kanpoan ere, beste nonbait eta nolabait, elkarrekin bizitzeko bestelako eredu bat eraikiz, alegia.

Bizikidetasun berri honekin pentsatu, sentitu eta egiteko bestelako harreman eta eraikuntza sozialak eraikitzeo aukerak emango dituzten belaunaldiarteko espazioak sustatzea proposa-

tzen dugu, hau da, **izateko askotari-ko modu guztiak, maila berean baina milaka forma ezberdinetan, parte izan ahalko diren espazioak, eraikuntza sozialak bultzatzea.**



Normala norma bada hobe izan nomada.

Arauekiko ez etiko

antipatiko

gorputz atipiko

anatomiko

anatomiko

atomiko

despistatua

Giltza. Alde erantzira nabil.

Ekhine Eizagirre. 2016. Susa

3. Haurtzaroaren kultura: kultura eraldatzailea

Egungo herri antolaketak heziketa prozesu kapitalistak elikatzen dituela ezin uka daiteke: indibidualismoa, haurtzaroaren infantilizazioa eta merkantilizazioa, kontsumo jasangaitzaren kultura... Beraz, **alternatiba gisa planteatzen dugun izango den herri antolaketak ere funtzio hezitzailea izan beharko du, guztiz bestelako balio hezitzaileetan oinarritutakoa, jakina.**

Paulo Freire pedagogo brasildarraren teoria eta praktikak oinarritat hartuko ditugu heziketa prozesuak eta prozesu eraldatzaileak elkarlotzeko. Freireren teoriaren ardatza eraldaketa eta aldaketa sozialean oinarritzen da. Bere pedagogia ez da egokitzapenerako izango, eraldaketarako baizik, eta bere pentsamenduak muga ugari gaindituko ditu: esaterako, hezkuntza-ekintza heziketa askatasunaren praktika dela eta “gizaki bukatugabea” dugula oinarri. **Gizakiok gure testuingurua dugu eta bertan sozializatzear gain, berau eraldatzen saiatu behar dugu.**

Hezitzailea den herriak, beraz, eraldatzailea izan beharra dauka halabeharrez. Egungo lurralde antolaketaren logika neoliberal eta indibidualisten aurrean, eraldaketa sozialerako tresna izan beharko da Herri Hezitzailea. Kultura eraldatzailea izango dugu ardatzetako bat jendarte justuago baten eraikuntzan

laguntzeko, interes sozialeko proiektuak izateko, autonomia eta kudeaketa demokratikodun irizpideekin funtzionatzeko, sortzen den aberastasuna modu parekidean banatzeko, edota ikuspegi soziala duten eta ingurumenarekiko jasagarriak diren praktikak garatzeko. Eraldaketa honetan sakontzeko lan tresna nagusiak Herri Hezitzailearen filosofiaren zazpi printzipioak izango dira, eta horiek proiektu zehatzetan egikaritu beharko dira.

Gure kasuan kultura eraldatzailea haurtzaroaren kulturarekin zuzenki uztartzen dugu, biak ala biak pentsamendu- eta praktika-lerroak baitira. Haurrek, nerabeek zein herritar orok euren modu etiko, estetiko, poetiko eta politikoa dute mundua ikusteko, eta gai dira euren bizitzari eta existentziari zentzua ematen dioten hipotesiak, teoriak eta metaforak eraikitzeko. **Pertsona oro ikasteko gaitasunarekin jaiotzen da, ez dauka galdetu beharrik, ez eta heldu/boteredun baten baimen beharrik ere ikasten hasteko.** Ekintza kooperatibo eta komunikatiboa da ikasketa, eta haurra/herritarra eragile aktiboa da hor; jakintza eraikitzen du eta munduaren gaineko esanahiak sortzen ditu, beste haur/herritar batzuekin elkarrekintzan.

Hori horrela, **Loris Malaguzzi** pedagogo italiarraren ideiei jarraikiz, haurrak, kolektibo zaurgarriak, helduak... bilduko dituzten elkarguneak sortzea proposatzen dugu, kultura eta jakintza

lankidetzan sor ditzagun. Hori posible izango bada, onartu beharra dago haurrek zein kolektibo zaurgarriek ahots propioa dutela, eragile sozialak direla, eta beren bizitzen eraikitzaile direla; eta, aldi berean, haien inguruan bizi direnen eta, oro har, bizi diren jendar-tearen eraikitzaile ere badirela. Eta ez soilik etorkizunean, baita orain eta hemen ere; haurren kasuan, haurrak diren bitartean ere bai.

Haurren pentsamendua disidentea da, oraindik ez dago normaltasunaren patroiaren menpe. Malaguzziren poemak dioen moduan, **“haurrek ehun lengoia dituzte, ehun esku, ehun pentsamendu. Pentsatzeko, jolasteko eta hitz egiteko ehun modu, harrizko eta maitatzeko ehun modu, abesteko ehun alaitasun. Ehun mundu uler- tze, aurkitze, irudikatze, ehun mundu amesteko”.**

Heldu moduan, ehun modu horietatik 99 mugatu beharrean, eta heldu bihurtzean komunikatzeko, entzuteko, maitatzeko, jolasteko, amesteko... ehun modu horietatik, normaltasunaren patroia horrek inposatzen digun modu

bakar hori soilik mantendu beharrean, ehun modu horietako bakoitza indartu eta biderkatuko bagenu?

Albert Einstenen esaldi famatuak dioen moduan “ezin ditugu arazoak konpondu, sortu ditugun modu berean pentsatzen jarraitzen badugu”. Pentsatzeko modu berri eta eraldatzaileak aurki ditzakegu haurrengan, eta gu geu behin izan ginen haur haiengan. Betiere, entzuteko prest baldin bagaude, noski. Gorpuz eta arima osoarekin entzuteko prest. Haurrei entzuten ikastea, aniztasuna entzuten ikastea izango baita. Eta aniztasuna entzuten ikastea da bizikidetasuna eraikitzeko ezinbesteko premisa. Entzutea, espero ez duguna itxoitea eta berau aurrera eramateko egiazko konpromisoa edukitzea baita.

“ Hori posible izango bada, onartu beharra dago haurrek zein kolektibo zaurgarriek ahots propioa dutela, eragile sozialak direla, eta beren bizitzen eraikitzaile direla”

4. Loturen herrialdea eta lurraldea

Espazio publikoa sare bat da, edo behintzat, hala izatea gustatuko litzaiguke. Horretarako, ordea, **ezinbestekoa da espazio publikoa osotasun gisa ulertzea, zatika diseinatu eta azertu beharrean.** Jabetu behar dugu espazio publiko guztiek sare bat osatzen dutela, eta kontuan hartu behar dugu sare horrek inguruan jarduerak gauzatu ahal izateko hornidurak (ekipamenduak) lotzen dituela.

Sare hori nolakoa den ulertzea ezinbestekoa izango da espazio publiko jarraikor, erabilgarri eta eroso bat lortu eta eratu ahal izateko. Edozein espazio publiko sortu, eraberritu edo bertan hornidurak kokatzeko, beharrezkoa da espazio berri horrek sare osoarekin izango dituen loturak ondo aztertzea. Zer premia eta behar ase behar dituen, sarearen barruan zer leku eta funtzio beteko duen ezagutzea, alegia. Izan ere, emango den erantzuna tokian tokikoa baina, aldi berean, orokorra izan behar da.

Sare hau ulertzeko herrian eragiten duten eta elkar lotuta dauden beste sare eta geruza batzuk kontutan hartzea ezinbesteko izango da, hala nola, mugikortasun sarea, etxebizitzak, merkataritza sarea... Horiek ere espazio publikoa osatzen baitute. Eta, horiez gain, espazioen izaera eta baldintza natural eta klimatikoak ere kontuan

hartu beharko dira. Beraz, azterketa konplexu batetik eta geruza eta sare guztien ulermenetik abiatuta soilik sortu edo eraldatuko dira espazio publikoak modu egokian.

Horretaz gain, **hiri eta herriak zerbitzu emaile moduan baino, zaintzaile moduan irudikatzea garrantzitsua da, eta zaintza herrian eragin zuzena duen sare gisa planteatzea.** Are gehiago, aurretik aipatutako sare guztiak zeharkatzen dituen elementu gisa ulertzea zaintza. Izan ere, zaintza bizitzaren jasangarritasuna da, eta politizatu egin behar da. Hau da, eremu publikoan eskubide eta betebeharren jokozelaiaren oinarrian kokatu behar da. Eginkizun horretan lagunduko digu zaintzaren inguruko esperientziak komunitario bihurtzeak, eta, bide batez, zaintza publiko komunitario bat eraikitzekeko urratsak ematen hastea.

Nora Salbotx psikopedagogo nafarrak esaten duen moduan **“zaintza hezitzailea da eta hezkuntza zaintza da. Zaintzatik hezi, zaintzeko hezi eta zaintzetan hezi”**. Zaintza dimentsio feminista eta eraldatzaile batetik hartuta, norbere burua zaintzetik abiatu eta besteak zaintzetik bereizi ezin den zaintzaren ikuspuntu kolektibo batetik jardun behar dugu. Zaintza, bizitza sostengatzen duen motor ikusezin hori, erdigunean jarri eta zaintza lanak bermatu ahal izateko komunitate osoa inplikatu behar da, eta pribatua eta pu-

blikoa eta norbanakoarena eta komunitarioa bereizten duen marra fin hori lausotuz joan dadin.

“Herritar-hezitzaile-zaintzailea” izan daiteke bizikidetasunaren Herri Hezitzaile bat eraikitzekeko oinarria. Denok, inolako salbuespenik gabe, zaintzaren menpeko garelako, eta aldi berean, zaintzaileak ere bagarelako (geure buruarenak, besteenak, inguruarenak, bizitzarenak). Zaintza ezin da aurreikusi, ezta patroï batzuen barruan definitu ere, behar adina zaintza modu baitaude. Zaintza bizitza bakoitzaren ezinbesteko sostengu denez, herritar-hezitzaile-zaintzaile moduan pentsatzeak aniztasunean elkarrekin bizitzeko forma berriak birpentsatzeko aukera ematen digu, inklusioaren kaxa herziak gainditzeko. Bizitzaren zaintza,

ardura sozial eta kolektibo moduan, erdigunean kokatzeko, eta behar duen garrantzia emateko.

Beraz, herri antolaketa eredu berriak eta berritzaileak elkarrekin bizitzeko eta elkar zaintzeko modu berriak bilatzeko ezinbesteko topaketak ahalbidetu beharko lituzke. **Ahalduntzeko topaketak, egia absolutu unibertsaletatik eta moralismotik urrun, elkarrekin-tzarako, sentitzeko eta pentsatzeko abenturara irekitako topaketak.** Herritar-hezitzaile-zaintzaile izateko eta bizikidetasun eredu berriak elkarrekin eraikitzekeko topaketa berriak, non bizitzako ziklo guztietako eskubide guztien elkarbizitza eta koexistentzia bertutuko duen. Eta topaketa hauek ahalbidertzeko topaguneak sortu beharko ditugu gure herrietan.



5. Herri antolaketa hezitzailearen ezaugarritzea

Herri Hezitzailearen filosofiaren oinarria hezkuntzaren ardura konpartitua-rena da. Herritarrak eragile hezitzaile eta, aldi berean, hezigarri izatea, herria bera eremu hezitzaile bilakatzen duena. Hezkuntza etxe eta ikastetxeetako lau pareten artean hasi eta amaitu beharrean, herri osora zabaltzen den continuum bat bezala ulertzen badugu, gutako bakoitzari eta espazioari berari komunitatea hezteko ardura ematen diegu. **Gutako bakoitzaren eta, ondorioz, kolektiboaren esku geratzen da, bada, komunitatea balio hezitzaileetan heztearen ardura.**

Gure herriak balio hezitzaileetan antolatzekeo garaian, horietan egingo diren esku-hartze eta prozesuetan jarriko dugu arreta. Horiek norabide egokian nola landu asmatzea dagokigu, eta horretarako iruditeri kolektibo propio bat eraikitzea garrantzitsua da. Honela,



guztiok ezaugarri jakin batzuen buel-tan saretzen diren ekintza eta prozesuak garatu ahal izateko. Hauexek dira ibilbide horietarako proposatzen ditugun ezaugarriak:

- **Egiteko moduetan arreta jarrita:** interbentzio konkrituak egitetik harago, ekintza horiek egiteko moduak ezaugarrituko du Herri Hezitzailea izatea. Egiten duguna bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa izango delako nola egiten dugun.
- **Parte-hartzailea:** haurren parte-hartzea bultzatzea planteamendu politiko holistikoa da, gure jendartean bazterturik diren hainbat kolektiboren egoera ikusarazten lagundu dezakeelako. Haurra jendarteko izakirik zaurgarriena izanik, orain arte jendartean bazterrean kokatuta egon diren pertsona horien metafora gisa ulertzen dugu. Haurrei hitza ematean eta beren begirada prozesuan txertatzean, herri egitas-

mo, egitura eta izaera askotarikoak bultzatzen ariko gara edo, behintzat, eztabaida horiek mahai gainean jartzen. Hortaz, herri antolamenduaren inguruko prozesuetan haurren zein kolektibo zaurgarrien parte hartzea bermatu beharko genuke.

- **Jasangarria:** sozialki, ekonomikoki eta ekologikoki jasangarriak izango diren eraldaketa prozesuak izan behar dira. Egungo eredu globalizatzaile eta xahutzaitetik harago, tokian tokiko logika endogenoen baitan garatuko diren espazio, gizarte eta antolakuntza esku-hartzeak sustatuko ditugu.
- **Feminista:** herriko espazioetan gertatzen den segregazioaz jabetzea ezinbestekoa izango da. Hots, hirien erdiguneak maskulinitate/ekoizpen/soldatapeko lan espazioak izatearekin amaitzeko. Herri antolamendua ere oinarri feministetan birpentsatzeak emakumeek esparru politiko formal zein informalean eta gizarte mugimenduetan duten parte-hartzeari erreparatzea dakar.
- **Publiko-komunitario-kooperatiboa:** tokiko edo herriko jardun eta garapenean hiru eragile nagusik dute eragina. Batetik, sare publikoa

dago, instituzioek osatzen dutena: horien funtzioa da Herri Hezitzailea garatu eta sustatzeko bitartekoak eskuragarri jartzea. Bigarrenik, sare komunitarioak daude: herria hezitzaile izateko bidean beharrezko diren ekimen eta erronkak identifikatuko ditu. Eta, hirugarrenik, sare kooperatiboak: hauek ekimen horiek egikartzeko bitarteko teknikoak jarriko dituzte. Elkarlan horrek eman- go die ikuspegi integrala eta koherentzia kolektiboa esku-hartzei.

- **Gobernantza eredu partekatua:** bakoitzak duen funtzioaz gain, hiru eragileen arteko elkarlan espazio bat sortzeak logika honen garapena azkartu lezake. Gobernantza eredu publiko komunitarioa sortzeaz ari gara, beharrak identifikatu, erronkak planifikatu eta bitartekoak kudeatuko dituen.
- **Gradualtasuna:** helburua ez da izango egun batetik bestera gure udalerrira Herri Hezitzaile bat bilakatzea. Pixkanaka-pixkanaka, modu gradualean, helburu horretara hurbilduko gaituen prozesu eraldatzaila abian jartzea izango da ardatza. Horretarako, ekintza txikiekin ikasiz, gradualtasun horretan, helburua betetzen joango gara.

6. Lurraldetasuna udalgintzatik

Gida honen helburu nagusia Herri Hezitzaileez ari garenean lurralde hezitzaileez ari garela ulertzea da. Horrela, halabeharrez orain artean modu isolatu eta estankotan landutako hainbat dimentsio elkartu eta **ikuspegi holistikoa batekin elkarlanean lantzea proposatzen dugu**, bai hirigintzatik (esku-hartze espazialak), bai herrigintzatik (esku-hartze sozialak) eta baita bien arteko uztarketatik ere. Ikuspegi holistikoa horrekin jarduteak proiektu osasungarriak eta bizigarriak sortuko ditu.

Udal administrazioek egunerokotasunean hainbat plan garatzen dituzte, herriaren orografia fisiko horren gaineko erabakiak hartzeko: mugikortasun eta irisgarritasun planak, udal ekipamenduen eta espazio publikoen azterketak eta berrantolaketak, besteak beste. Plan horiek oso egokiak dira hirigintza tresna gisa, eta herritarren eguneroko bizitza hobetzeko asmoarekin egiten dira. Hala ere, **gehienetan plan horietako bakoitza udal sail jakin batek gauzatzen du, eta sail bakoitzak du bere ikuspuntua du, ikuspuntu mugatua beti ere**. Sail horietako zinegotzi eta teknikariek gainerako sailekin elkarlanean lan eginez sailen arteko lankidetzak bultzatuko da eta horrela lortu ahal izango da aipatu dugun ikuspegi integral eta holistikoa hori; izan ere, departamentu sail bakoitzean egiten diren arlokako lan horien ikuspuntu mugatu

eta estankokoak ez digute balio esku artean ditugun erronkei erantzuteko.

Egungo eta etorkizuneko erronkak geroz eta konplexuagoak dira, eta ezinbestekoa da hainbat ertzetatik modu koordinatu batean erantzutea. Horretarako, udal sailen arteko elkarlana eta elkartrukea erraztea behar beharrezkoa izango da, aipatutako ikuspegi integral eta bateratua lortzeko prozesuan. Guxienez, honako sail eta azpisail hauen arteko uztarketa beharko da: **hezkuntza, hirigintza, gazteria, etxebizitza, gizarte zerbitzuak, parte-hartzea, berdintasuna, euskara, ingurumena, kultura eta elikadura**.

Herriari begira egiten diren planek bateragarritasun bat ezarri beharko lukete (Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak, Mugikortasun Planak... adibidez) sailen arteko lanaren bidez. Tamalez, gehienetan ez da horrela egiten. Plan horiek guztiak norabide berean lerrotatzea, eta batak bestea elikatzea oso garrantzitsua da, uztarketa horrek herri eremuan eta antolaketan sakontzeko ikuspegia eta jarrera argia ezarriko baititu.

Udalgintzaren logika horren baitan elkarlanak lan teknikoa gainditu beharra dauka. Gobernuan zein oposizioan dauden indar politikoek, lau urtean behingo legegintzaldien logikatik harago, ikuskerak eta estrategiak adostu behar dituzte bizikidetzan oinarrituko diren herri hezitzaileen bidean pausoak emateko.





Logika berean aritu beharko lukete instituzioekin kanpo aholkularitzan diharduten enpresek. Kanpo-laguntza teknikoak ematen den kasuetan ikuskera kolektibo hau haiekin konpartitu eta adostea, herria antolatzeke orduan baldintza hobetan aritzea ekarriko liguke.

Herri antolaketa berri eta integral hori lortzeko, ezinbestean, berebiziko garrantzia izango dute lurraldearen bost dimentsioak:

- **Lurralde osorako etorkizun orekatua:** lurraldea ekosistema bizi eta organikoa da. Hori dela eta, bere garapen eta metabolismoa modu orekatuan diseinatu, landu eta elikatu behar da. **Desorekak sortzen dituzten elementuak identifikatu, eta norabide egokian esku hartu.** Adibidez: hiri eta landa eremuen arteko harremana orekatzeko inbertsioak; zerbitzu publikoak deszentra-

lizatzea eta birdimentsionatzea, gutzientzat eskuragarri izan daitezten.

- **Des-hazkundera:** egungo hazkundera infinituaren logikaren alternatiba da. Ekonomiaren globalizazioa, lurraren artifizioa zein natur baliabideen esplotazioa mugarik gabe aurrera eraman beharrean, kontzientziak piztu eta ekintzak martxan jarri behar dira. Kontzientziak pizteko ekintzak, berrerabili eta aprobetxamendua hobetzeko ekintzak eta kontsumoak nabarmen murrizteko ekintzak. Adibidez: **ekonomia soziala eta tokikoa, ekonomia kooperatiboa, saltoki txikiak eta abar sustatzea;** gure lurraldeko aireportu eskaintza birpentsatzea (5 aireportu Euskal Herrian); gure lurraldeko portu azpiegiturak elkarlanean eta lehiarik gabe antolatzea, bikoiztasunak zein superportuak saihesteko; turismoaren desazkundera sustatzea.
- **Oinarrizko eskubide eta beharren desmerkantilizazioa:** pandemiak sortutako azken krisi honetan argi geratu da oinarrizko zerbitzuak komunitatearen jabetzakoak izateak duen garrantzia. Horrela bakarrik har daitezke egoera bakoitzerako neurri egokiak (fakturak etetea, esate batera), eta horrela bakarrik saihestu daitezke lurralde zein errenta arrazoiengatikoko arrakalak, digitala, kasu.
- **Herriaren (ber)naturalizazioa:** gure lurraldeak gero eta artifiziozatuagoak dira. Natura gero eta urrunago eta herrien periferietan sakabanatuta dago. Natura gero eta presoago dago herri barruko eremu isolatuetan. Herri Hezitzaileak eraiki nahi baditugu, ezinbestean herri organikoak izan beharko dute. Naturaren eta eremu artifizioalduek arteko oreka eta uztarketa bilatu beharra daukagu. Egungo herri artifizioalduek


“ikuskera kolektibo hau haiekin konpartitu eta adostea, herria antolatzeke orduan baldintza hobetan aritzea ekarriko liguke”


pixkanaka natura sartu behar dugu, eremu gehiagotan txertatuz, eremu ezberdinen arteko trantsizio bideak sortuz, zuhaitzen eta uraren presentzia indartuz eta beste hainbat interbentzio taktiko zein egiturazko aurrera eramanez.

- **Mugikortasunaren berrantolaketa eta kaleaz birjabetzea:** gure herriak nola erabili eta bertatik zein modutan mugitu nahi dugun zehazteak

ere lagunduko digu herri hezitzailea eraikitzen. Kalea leku batetik bestera joateko trantsizio bide baino, herri komunitateak erabiliko duen espazio bilakatu behar dugu. Erabilera zehatz eta atomizatua duten tokien aurrean, elkarrekiko harremana eta askotariko erabilera izango duten kaleak diseinatuko ditugu. Eta horietan barrena modu jasangarri, seguru eta hezitzaile batean mugitzeko sistemak pentsatu eta garatuko ditugu.

Bost dimentsio hauek kontuan izanda, ikuskera holistikoa eta transdimentsionala duten esku-hartzeak lortuko ditugu generoa, feminismoa, zaintza, ongizatea, osasuna eta beste garatzeko. Errealitatea bere osotasunean, modu global eta integral batean landuko duten, ekintza eta prozesu puntualetatik harago, unibertso propioaren izaera izango duten ekosistemak eraikitzen joango gara: hau da, **ekosistema propio ugari dituen herri hezitzailea.** ■





UDALEKIN ELKARLANEAN ARITZEKO AUKERAKO EKINTZAK



Hezkuntza-espazioak pedagogia eta arkitektura beharrak kontuan hartuz proiektatzeak sormena eskatzen duen ekimena da; diziplinartekoankidetzeta eta konpromezua/engaiamendua abiatzea eskatzen du eta hainbat alorren arteko elkarriketa behar du askotariko sentsibilitateak kontuan izan behar baitira. **Arkitektura espazioaren okupazio gisa ulertzea jada ez da nahikoa, bizitzeko edertasun eta kulturaren topaleku gisa ikusten hasteko garaia da.**

Munduarekin etengabeko harremanean birsortzeko gaitasuna duen herri antolamendu dinamiko, malgu eta parte-hartzailea helburu izanik, jarraian, gure herrietan egin ditzakegun esku-hartzeak zerrendatuko ditugu. Posible den horretan indarra jarrita, kultura partekatua sortzea dute helburu esku-hartze proposamen hauek. Praktika onak bilatu, hausnarketa sustatu eta ahalegin kolektiboaren iraunkortasuna sustatzeko prozesuak planteatzen ditugu. Elkarrekin alternatiben iruditeria

eraikitzen joateko, eta tokian tokiko ez-ugarrietara egokituko diren praktika eredugarriak sortzen joateko. Sentitu, pentsatu eta ekin!

Egiteko modu horietan aritzeko, ezinbestekoa izango da gertutasuna. Gertutasun fisikoa baina baita instituzionala ere. Hori dela eta, eragite eremu nagusiak tokian tokiko komunitatea eta egunerokotasuna izan behar dira. Kontuan izanda, kasuan kasu, komunitatea auzoa, herria, hiria... izan daitekeela eta udalak direla herritarrengandik gertuen dauden instituzio publikoak. Horietatik egin ditzakegun ekimenak zerrendatuko ditugu jarraian, udalgintzaren garrantzia balioan jartzeko, eta zeregin horietarako guztietarako beharrezkoak diren baliabide eta eskumenak zehazteko.

Pertsona baten bizi itxaropenean kode genetiko bako bako garrantzitsuagoa dela frogatu dute ikerlariak. Goazen, bada, posta kode horiek guztiak aldatzera, bizitzeta ederragoa eta bizigarriagoa izan dadin.

1 ZER EGIN?

Udalerrri bateko eragile publiko zein sozialekin elkarlanean zer egin dezakegun lantzeko garaian, ezinbestekoa da iruditeria partekatu bat eraikitzeari bidea irekitzea. Herri hezitzaileen bidean sakontzeko zein pausu eman daitezkeen argi baldin badugu, errazagoa izango da herrietan dauden indarguneak identifikatu eta elementu horiekin zer egin daitekeen irudikatzea.

1.1. BEHAKETAK – Aztertu, detektatu, identifikatu eta seinaleztatu:

herrian dagoena balioan jartzeko, oso lagungarria izango da behaketa. Herri guztiek daukate jada zerbait herri hezitzailearen norabidean. Hori identifikatu eta balioan jartzea izan daiteke lehen pausoa. Herrietan hezitzaile izateko xedea duten espazio, eremu, proiektu zein eragileak identifikatzetik has gaitezke. Ondoren, berauen arteko zubi-lana egiten eta bide seguruak marrazten jarrai dezakegu, herriko proiektu, espazio eta eragile hezitzaileak saretz.

- **Belaunaldi ezberdinen arteko elkarguneak identifikatu,** ezaugarritu eta berriak sortzea: adin ezberdinetako herritarrak elkarreaginean jardun dezaketan espazio eta eremuak identifikatu. Esate baterako, liburutegiak, kultur guneak, erakusketa eta hitzaldi aretoak... Horiek denak oroimen kolektibo eta kultu-

ralaren transmisioa ahalbidetuko duten espazioak dira.

Horren adibide izan daiteke Azpeitiko San Agustin Kultur Gunea. Bertan, instituzio publikoen eta herri kooperatibaren arteko elkarlanean belaunaldi eta ikuskera ezberdinetako herritarrek parte hartzen dute eta gune eta proiektu hezitzaile garrantzitsuak izan daiteke herrian.

- **Kooperazio eta elkarlanerako guneen mapa:** jada martxan dauden elkarrekintzako gune eta proiektuak identifikatu eta herriko mapan kokatu. Horrek ikuspegi integrala ematen die udalerrri horretan hezitzaileak diren eremuei eta haien arteko bide seguruak sortzen joan gaitezke: herrian panel batzuk jarritz, proiektu hauekin zein herritarrekin sareak josiz...

Adibidez: etxebizitza komunitarioak eta baratz zein elikadura kooperatibak aliatu estrategikoak izango dira ikuspegi hezitzailea txertatu eta herri hezitzaileen dinamikan parte hartzeko.

“Pertsona baten bizi itxaropenean kode genetiko bako bako garrantzitsuagoa da”

- **Espazio publikoan elkarrekin topatzeko gune erosoak sortzea: terraza publikoak, kasurako.**

Kalean jolas librea eta espontaneoa sortzeko baldintzak dituzten espazioak identifikatu eta sustatzea. Eskola kirola bezalako egitasmo antolatua kirol instalazioen barruan egin beharrean kalean eginez, kalean jolasak berriro presentzia izatea lortuko genuke.

Jolas eremu posible guztiak identifikatu, eta horiek ezaugarritu: etorkizuneko esku-hartze espazialerako aukerak aztertzeari begira, jolas eremu bilakatu ditzakegun guneak identifikatu eta sailkatzea: orube hutsak, utzita dauden espazioak, erabilerarik gabeko txokoak... eta

antzeko tokiak identifikatu eta mapatzea Udalaren eta komunitatearen arteko lanketarako aukerak irekitzen ditu. Jolaserako puntu beltzak identifikatzea ere baliagarria izan daiteke, toki horietan segurtasun neurriak hartzeko.

Eskoletako kanpo espazioak eta eskolako ingurune hurbila: hezkuntza komunitatea sustatzeko, hezkuntza komunitatearen elkargune diren espazioak birplanteatzea garrantzitsua da. Zeinen beharrei erantzuten diete egun dauzkagun patio ereduak? Zerk hartzen du erdigunea eta zer geratzen da bazterretan kokatua? Nola susta dezakegu hezkuntza komunitatea saretzea, eskola ingurunea autoentzako aparkalekua bada? Eskola atariak,

esaterako: bestela nekez topatuko liratekeen herritarren topagune dira egunero-egunero eta atari horiek giza harremanak errazteko eta eroso egoteko eraldatzea eta babestea garrantzitsua izan daiteke.

- **Hezkuntza ez formaleko eragi-leak eta espazioak identifikatu eta saretzea:** ludotekak, gaztelekuak, emakume txokoak, jubilatuen etxeak eta beste elkartzeko tokiak sustatu.

1.2. SAREAK (gizarte esku-hartzeak) - Hainbat sare sortu

Herri hezitzaileak ulertu eta garatzea herritar guztion ardura da. Horregatik, ezinbestekoa izango da herritarrak saretzea eta elkarlanean jartzea belaunaldi ezberdinen artean norabide estrategiko honetan herri proiektu integral bat aurrera eramateko.

- **Herrian konfiantzazko guneak saretu:** haurrak herrian zehar modu autonomoan mugitu eta bizi daitezen herritar guztion arteko elkarlana bermatu behar da. Helburu argi horrekin, herri hezitzaile bat eraikitze bidean eman beharreko beste pauso bat konprometitutako eragi-leak saretzea da.
- **Bide seguruak:** haurrak modu autonomoan herrian zehar mugitzeko beharrezko sare soziala antolatzeaz ari gara, ez bide hori egiten lagunduko dien heldu bat

jartzeaz. Horretarako, erreferentzia puntuak sortuko ditugu, eta haien arteko bideak landu: herri baratzak, etxebizitza komunitarioak, kultur espazioak...

- **Jolas eremuen arteko sarea:** herriko jolas eremuen (ofizial eta inprobisatu) arteko ibilbideetan konfiantzazko sareak sortzeaz ari gara. Bidean dauden komertzio, taberna, zerbitzu zein pertsonen haurren mugikortasun autonomoaren aldeko konpromisoa hartzeak ahalbidetuko du hori.
- **Bidelagunen sarea (saltokiak, ekipamenduak...):** udalerrian norabide honetan pausoak emateko beste modu bat izan daiteke "bidelagunen sarea" figura sortzea. Sare horrek hainbat dimentsio izan ditzake, eta horietako bakoitzak konpromiso eta funtzio ezberdinak:

Jolas sarea: eremu horietan egoten diren helduekin lanketa eginez.

Merkataritza sarea: herriko merkatariekin lanketa eginez.

Mugikortasun sarea: herritar norbanakoekin lanketa eginez.

Ekipamendu publikoen sarea: bertan lanean diharduten teknikari zein langileekin lanketa eginez.



1.3. EKINTZA ESPAZIALAK (esku-hartze espazialak)– Egin, berreskuratuz, birgaituz, berrituz, eraldatu

Gure herriak herri hezitzaile bilakatu nahi baditugu ezingo dugu eraldaketa sozialaren bidez soilik lortu. Eraldaketa horrek espaziala ere izan beharko du derrigorrean. Gure kale, plaza, lursail eta jolas eremuak eraldatu beharko ditugu, hau da, herria eraldatu beharko dugu.

- **Bide seguruak sortu:** haur eta nerabeak (baita gainontzeko kolektibo zaugarriak ere) herrian zehar modu autonomoan mugitu ahal izateko (jolasteko, etxetik eskolara joateko, erosketak egiteko, ...) egon litezkeen muga, arrisku zein oztopoak hirigintza ikuspegitik landu behar dira. Adibidez: kaleak oinezkoentzako bilakatu, autoen abiadurak jaitsi...
- **Espazio fisikoak sortu:** herri hezitzaileen dinamikak toki fisiko bat izateak onura handiak ekar ditzake. Dinamika sozialek indar berezia hartzen dute sinergiak sortzeko espazio fisiko propioa dutenean. Beste pauso bat izan daiteke helburu hezitzailea duten herriko eragile eta egitasmoak elkar topatzeko lokal zein eraikin bat izatea. Oñatiko Eltzia bezalako espazioak dira horren isla.
- **Baztertutako espazioak berreskuratzea:** herrian zehar zenbait arrazoiengatik utzita eta egoera

txarrean dauden espazioak haur eta nerabeen erabilerarako berreskuratzea; horretarako, auzolanak antolatuz eta belaunaldi ezberdinen arteko harremanak sustatuz. Askotariko ekimenak izan daitezke: jolas eremuak sortu, ekimen kultural-sortzaileak (muralak, grafitiak)...

- **Jolas eremuak:** jada dauden zein eraiki daitezkeen jolas eremuetako esku-hartzeak norabide egokian egitea. Guztiz gidatuak diren jolasetatik haratago, jolas librea, sorkuntza, imajinazioa eta psikomotrizita-

tea sustatuko dituzten eremuak sortzea. Eta baita natura eta bizitza jolas esperientziara hurbilduko dituzten materialak erabiltzea ere (egurra, harria, ura, landaredia...). Adin guztietako herritarrek gozatu ahal izateko jolas eremuak sortzea, jolasa ez delako haurrentzat bakarrik.

- **Ko-sorkuntzarako espazioak:** gure herrian herrigintzako eragileak eta udala elkartzen diren espaziorik ba al dago? Gobernantza publiko komunitarioa ahalbidetzeko espazio eta egitasmo partekatuak eraikiko ditugu.

- **Sormen eta kultura esku-hartzeak:** sorkuntza bidez haur eta nerabeak protagonista izateak bi norabide-tan aberastu dezake herria. Batetik, sorkuntza eta imajinazioa lantzeak haien garapenean indar positiboak ditu. Bestetik, haiek sortutako arte-lan zein sorkuntzak herrian zehar presentzia izateak herria erakusleiko bilaka dezake. Herria haur eta nerabeen tailer eta erakusleiko izatea da herri hezitzaileen bidean beste pauso bat emateko aukera.



2 NOLA EGIN?

Herri hezitzaileak eraikitzeko garaian, ordea, gakoa ez dago egingo ditugun esku-hartzeetan soilik. Emango ditugun pauso horien nolakotasunak berebiziko garrantzia du. Egiteko modu publiko-komunitario-kooperatiboan jarriko dugu arreta, baita herriko kolektiboen inplikazioan ere.

2.1. PARTAIDETZAZKO PROZESUAK

Herri hezitzaileak herritarren inplikazioa, konpromisoa eta parte-hartzea bideratzen eta eskatzen du. Herri hezitzaileak, bizikidetasunaren herriak dira eta ezinbestean herri parte-hartzailea izan behar du.

Parte-hartzea sustatu behar dugu, lurraldegintzan protagonista izango den parte-hartze eredia. Herrian aurrera egingo diren esku-hartze espazial eta urbanoetan hasiera-hasieratik haur eta nerabeak presente egongo diren eredu bat bultzatuko da.

Parte-hartze eredu berri bat behar dugu. **Azken urteetan ugaritu diren parte-hartze prozesu sarri sinboliko eta mugatuak gainditu, eta parte-hartzea benetan gobernantza publiko komunitario baterako tresna izatea nahi badugu.** Herritarrei zer nahi duten galdetzea bakarrik ez baita parte-hartzea, erabakitze gaitasuna ere partekatua behar da izan. Elkarre-

kin eraikitzen ikasten hasteko, elkarrekin herri bezala zer behar dugun pentsatzea izan daiteke abiapuntua.

Zerbaitetan parte hartetik zerbaiten parte izatera pasatzea. Hori da gakoa. Horretarako, elkarlan horizontalerako metodologia berriak eta espazioak eta egiturak sortzea ahalbidetuko dugu eta horrekin komunaren logika kolektiboa berreskuratu. Parte-hartzearen bidez erantzunkidetasunezko erabaki gu-
neak sortuko ditugu. Horrek esan nahi du harremantzeko modu berriak jorratu behar direla eta botere harremanak irauli behar direla, udal barruan zein kanpoan.

Parte-hartzea aditz gisa eta ez izen moduan ulertzen hastea, etengabeko eraikuntzan dagoen zerbait baita. Ez baitago ongi edo gaizki egiteko modu bakar bat, egiteko modu berrietara etengabeko egokitzea baizik.

Parte-hartzea sustatzea prozesu instituzional eta publikoetan. Herri hezitzailearen bidean eman dezakegun beste pauso bat hau da: udalerrira diseinatu eta garatzeko jarraitu beharreko gidalerro, lege eta ordenantzetan parte-hartzeak lege duen tokia identifikatzea eta potentzial guztia aprobetxatzea.


Adibidez: Energia Jasangarritasun Planean, Mugikortasun Planean, Hiri Antolaketa Plan Orokorrean zein Partaidetzako Aurrekontuetan.

Beraz, haur eta nerabeak ere udalerraren jasangarritasun energetikoaren, mugikortasunaren, hiri antolamendua-
ren eta aurrekontuen inguruko prozesu horietan protagonista izatea ezinbestekoa da, herri hezitzaileen bidean pausoak emateko.

Parte-hartze egiturak: beharrezko egiturak prestatu beharko ditugu, haur eta nerabeak prozesu eta plan horietan guztietan murgildu eta inplikatu daitezten, eta haien iritzi, ikuskera, ekarpenak azal ditzaten. Unean uneko errealitatera egokituko diren parte-hartze espazioak izan beharko dira. Malgutasunez jokatu dugu, alegia, espazio horietako batzuk iraunkorrak eta beste batzuk behin-behinekoak izan daitezke. Hala ere, ahal den heinean, parte-hartze egitura iraunkorrak sortzea lehenetsiko dugu.

Espazio horiek dimentsio, forma eta ezaugarri ezberdinetakoak izango dira, haur eta nerabeekin lortu nahi diren helburuen arabera: dela aisialdi parte-hartzailea, dela hainbat gairen inguruko foroak zein elkarlanerako mahaiak eta beste.

“Parte-hartzea aditz gisa eta ez izen moduan ulertzen hastea, etengabeko eraikuntzan dagoen zerbait baita”



2.2. ANTOLAKETA PARTEKATUA: PUBLIKO-KOMUNITARIOA

Heziketa prozesu orok beharrezkoa dauka elkar ikaskuntza eta elkarlana. Horri erantzunez, Herri Hezitzaile bat eraikitze bidean egin beharrekoak modu partekatuan eta aniztasuna errespetatuz garatzea proposatzen dugu.

Gure herriko erronken aurrean irtenbide integralak nahi baldin baditugu, ikuspegi integralarekin lan egiteko apustua egin beharko dugu. Horretarako, lantalde guztietan ezaugarri hauek txertatzea interesgarria izan daiteke:

- **Belaunaldi arteko herritar taldeak:** herrian egin beharreko lanketarako espazioetan ere (batzarrak, auzolanak...) ezin dute soilik pertsona helduek egon. Herri hezitzaile baten lanketak jendarteko hainbat kolektibo integratu behar ditu, hala nola adinekoak, haurrak zein nerabeak. Osaera horrekin ikuspegi askoz ere askotarikoagoa eta integralagoa izango dute lan espazio antolatuek, hala nola, herri hezitzaileen elkargunek, auzolan egiturak zein herriko zaintza taldeek.
- **Eredu publiko komunitarioa garatzeko kooperatibak sustatzea:** etxebizitza komunitarioak, energia kooperatibak, eraldaketa sozialeko bulegoak, elikadura burujabetza, kultura... Udala eta herrigintza elkarlan horizontalean aritzeko egi-

tura berriak sortzen joatea. Jadanik badauzkagu horren adibideak.

- **Udaleko sailen arteko espazioak sortzea:** udalaren baitako lan espazioetan (batzordeak, komisioak, mahaiak...) ezin dira soilik Hezkuntza edo Gazteria egon. Herri hezitzaile baten lanketak beste hainbat sail ere integratzea eskatzen du, besteak beste: Hirigintza, kaleen mantentze-lanetarako taldea (Obrak eta Zerbitzuak), Udaltzaingoa, Ingurumena, Kultura, Kirola, Berdintasuna, Migrazioa eta Aniztasuna zein Euskara.

Lan espazioen antolaketa horrek askoz ere modu egokiagoan erantzungo die oztopo arkitektonikoak eraldatzeko erronkari, irisgarritasunari buruzko informazioa jasotzeari, zein jolas guneen egokitzapen eta mantentzeari.



- **Udalaren erritmoa eta burokrazia administratiboa gainditzeko tresnak sortzen joatea:** instituzio publikoen erritmoak eta haur eta nerabeenak ez daukate zerikusirik. Beharrezkoa da udalen gehiegizko burokratizazioaren eta eskumenen inguruko hausnarketa bat egitea.
- **Kolektibo bakoitzarentzat egokitutako prestakuntza:** eragile sozialeantzat, guraso eta zaintza komunitatearentzat, Udaltzaingorentzat... Udal teknikariek, adibidez, urtean ordu kopuru bat esleituta dute prestakuntzarako eta hori baliatu daiteke. Prestakuntza hori elkarrekin jasotzea garrantzitsua da, mezua hasieratik partekatua izan dadin.

2.3. AHALDUNTZE-PRESTAKUNTZA

Herri Hezitzailearen eraikuntzak heziketa prozesu iraunkor bat eskatuko digu guztioi, bai herritarrei, bai instituzioetan lanean dihardutenei, eta baita haur, nerabe zein helduoi ere. Ikuspegi eta logika honetan aurrera pausoak eman ahal izateko, prestakuntzak berebiziko garrantzia izango du. Hona hemen norabide horretan aurrera pausoak emateko hainbat aukera:

- **Herri ibilbideak:** hainbat kolektiborekin egitea, espazio bakoitzaren aurrean bakoitzak dituen pertzepzioak ezagutzeko.
- **Udalentzako gida bat sortzea:** esku-hartze mota guztiak bilduz (espazialak zein antolaketakoak, sareak, adibideak, metodologiak, etab.)

3 TRESNAK

Lanketa hau guztia errazago egiteko, egun udaletan martxan dauden hainbat tresnaz baliatzea proposatzen dugu. Hiri eta herrien antolaketa prozesu legal eta administratiboetan badira hainbat zirrikitu herri hezitzaileen eta bizikidetasunaren bidean haur eta nerabeak ere kontuan izateko.

Horretarako, lehen pausua tresna horiek ezagutzea eta eskaintzen dizkiguten aukerak identifikatzea da. Hona hemen adibide batzuk:

3.1 LEGE TRESNAK

4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.

- **Energia jasangarritasun plana:** 6.h eta 10. artikuluen arabera, administrazio publikoek herritarren parte-hartzerako mekanismoak jarri beharko dituzte.
- **Mugikortasun Plana:** EAE mailako legeak lurralde honetako udalerrri guztiak Mugikortasun Plana egitera derrigortzen ditu. Plana 5 urtez egonen da indarrean, eta plan ho-

rien baitan herritarren parte-hartzea bermatu behar da (24.4 artikulua).

- 5.000 biztanletik gorako herriek legea indarrean jarri eta bi urteren buruan horrelako plan bat izan beharko dute.

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO): HAPOa udalerrria antolatzeko tresna nagusienetakoa da. Laburbilduz, HAPOak udalerrri fisikoaren barnean zer, non eta zenbat eraiki daitekeen arautzen du. Plan honen idazketaren fase batzuetan parte-hartzea ezinbestekoa da, 0. eta 3. faseetan, hain zuzen ere.

- **0 FASEA -Herritarrek Parte hartze-ko Programa (HPP)**
- **1 FASEA -Hirigintza informazioa**
- **2 FASEA -Aurrerakina**
- **3 FASEA -Jendaurreko erakustaldia (aurrerakina)**
- **4 FASEA -Hasierako onespena**
- **5 FASEA -Jendaurreko erakustaldia (hasierako onespena)**
- **6 FASEA -Behin-behineko onespena**
- **7 FASEA -Behin betiko onespena**



Partaidetzako aurrekontuak: aurrekontuetan bozkatzeta baino, aurrekontuetara zer eraman nahi den definitzeko prozesuak diseinatzea interesgarria litzateke. Era berean, inbertsioetarako partidetatik (6.kapitulua) harago, sail bakoitzeko aurrekontuetan hurrekin egiteko prozesuak txertatzea (2. kapitulua).

Beraz, lege zein udal ordenantzen bidez araututako prozesu horietan gure lana izango da haur eta nerabeak integratu daitezen udalekin adostea.


3.2 TRESNA EKONOMIKOAK


- **Diru-laguntzak**
- Agenda21 (ODS 2030)
 - Kutxa ekogunea // Kutxa fundazioa
 - Osasun sailetik dauden diru-laguntzak
 - Parte-hartze diru-laguntzak
 - Gipuzkoako Foru Aldundia, "Parte-hartze dirulaguntzak"
 - Lurraldetasun ikuspegia: Naf, EAE, Ip
- **Udal aurrekontuak**
 - 1.kapitulua. Pertsonal gastuak.
 - Kontratazio programa
 - 2. Kapitulua. Ondasun/zerbitzu gastuak
 - Departamentuak/Zerbitzuak
 - 6. Kapitulua. Inbertsio errealak
 - Obrak, hornikuntzak

Udaletan jadanik eskura dauzkagun

tresna horiez guztiez gain, berriak birpentsatzera gonbidatzen zaituztegu, gure herrietako errealitateak ezagutzeko bestelako tresna batzuk behar ditugulako. Izan ere, guregana iristen zaigun errealitatea boteretsuenengandik etortzen da; askotan zaugarritasun egoera larrienean daudenak eta, ondorioz, behar gehienak dituztenak, egoten dira instituzioetatik urrunen. Horren kontzientzia hartu, eta eurengana iristeko bide berriak jorratzea garrantzitsua da. **Hirigintza tresna berriak, iraultzaileak eta irudimentsuak behar ditugu, asistentzialismoa ekidin eta elkartasuna sustatzeko.** Kanean gertatzen dena aztertzea eta herritarren egunerokotasuneko arazoez jabetzea beharrezkoa da. ■

“askotan zaugarritasun egoera larrienean daudenak eta, ondorioz, behar gehienak dituztenak, egoten dira instituzioetatik urrunen”





PROIEKTU FITXA

Proiektuaren sustatzaileak

Proiektuaren izena

Proiektuaren narrazioa

Azaldu laburki proiektua

Helburuak

Aipatu zeintzuk izango diren proiektuaren helburuak.

Proiektuaren kokapena

Proiektuaren eskala

Aukeratu proiektuak hartuko duen eskala

Auzo maila / herri maila / eskualde maila / lurralde maila

Iraupena eta faseak

Adierazi proiektuak izango duen denbora tartea

Parte-hartzaileak

Aukeratu zein erpin dauden inplikaturak

Proposatutako lankidetzak

Azaldu bakoitzak zer eskainiko dion proiektuari

Lan estrategia


Azaldu labur zein izango den proiektua garatzeko jarraituko den metodologia

Dirulaguntzak

Eskatu daitezkeen dirulaguntzak aipatu

Aurrekontua

Adierazi proiektu honetarako aurreikusten den gutxi gorabeherako aurrekontua



EZ—ONDORIOAK

“Ergelkeria ondorioztatzeko gai iza-tean datza” Gustave Flaubert.

Beraz, hau ez da ondorio bat. Liburu-xka hau modu kolektiboan idazten jardun garen kideen arteko hausnarketarako hartutako tarte bat da. Liburuxka idazteko prozesuak eta bertan jaso ditugunek, gudan eragin dituzten bi-zipen, sentimen eta galdera berriak elkarrekin partekatzeke hartu dugun tarte bat. Izan ere, idazterakoan, gai sakontzen joan ahala, galdera eta zalantza berriak sortzen joan zaizkigu. Liburuxka honetan jasotakoek oraindik ibilbide luzea egiteko dutenaren seinale. Ziurtasun gutxi eta zalantza ugari izaten jarraitzen dugunez, hausnarketarako tarte hau baliatu nahiko genuke hari mutur berriak mahaigaineratzeko.

Liburuxka honen helburua ez da ezer berria azaleratzea izan, gauzei beste begirada batekin begiratzen ikastea baizik. Inklusiotik bizikidetasunera egiteko daukagun bidaia deskubritzeko aukera eman digu lanketa honek. Eta gertuko begiradaren garrantzia birgogorazi digu, izan ere gertutik denok gara bereziak. Baina prest gaude begirada aldaketa honek barnebiltzen duena geure egiteko?

Nola aldatu begirada oraindik ere integraziotik inklusiorako jauzia ematea lortu ez dugunean?

Mezuarekin asmatzen ari ote garen zalantza dugu. Erdigunean jartzearen

diskurtsoa, guk geuk ere behin baino gehiagotan aldarrikatu duguna; haurrak eta nerabeak erdigunera, zaintza erdigunean jartzea, euskara erdigunera... baina erdigunean jartzen denean zerbait, beste guztia bazterrean ez al da geratzen? Zerbait erdigunean jartzen dugunean ez ote gara hierarkiak birsortzen ari? **Agian estrategia erdigunean erlazioak eta loturak jartzea izan daiteke?** Hor sortzen zaigu zalantza. Ea ondo transmititzen ari garen, dena bat dela, eta modu holistiko batean garatu behar dugula begirada hori. Begirada aldaketa hori bera, ere bai.

Bizikidetasunaren ideiak jendarte honentzat normala dena zalantzan jartzea inplikatzeko du, erdigunean dagoena alegia. Ariketa hau egin ezean, norma horretatik kanpo dagoen guztia normaren begiradatik irakurtzen jarraitzeko arriskua dagoelako. Alegia, **erdigunea existitzen den bitartean, erdiguneak bazterrak sortuko ditu eta horregatik, erdigunea okupatzeko nahia eta beharrak existitzen jarraituko dute.**

Bizikidetasunaren ideia inguruan ari garela, konturatu gara diskurtso hau ere nortzuk eta nondik eraikitzen ari garen. Normaltasun bat badago eta gu geu gara normaltasun hori gorpuzten dugunak. Liburuxka hau idazten aritu garen guztiak azal txurikoak, maila sozio ekonomiko ertainekoak, ikasketa maila jakin batekoak, gorputz zehatz bat gorpuzten dugunak... gara. Ez ote

gabilta erdigunetik bazterretaz hitz egiten? Diskurtso hau, begirada aldaketa hau ere, erdigunetik edo norma hori bera gorpuzten dugunotatik eraikitzen ari gara? Nola utziko dugu leku pribilegiatu honetan aurkitzen ez diren gorputzek gure diskurtsoa kutsatzen? Non topatu dezakegu elkar? Gorputz anitzak (ahotsak, sentimenduak, afektuak) entzuteko prest gaude? Bizikidetasunerantz joateko zenbateraino gaude prest gure gorputzak leku deserosoagoetara eramateko? Benetako bizikidetasunean, aniztasunean bizi nahi badugu eta desberdintasunak saihestu, lurralde tirabiratsuetan murgiltzen gara. Izan ere, gorputz anitzak entzuteko prest egon behar gara eta behar hori desio bihurtu.

Bizikidetasuna eraikitzeke periferia eta erdigunea zalantzan jarri behar ditugu. Eta horrek ezinbestean gure pribilegioei begiratzea eskatzen du, hauetaz jabetu eta deseraikitzea.

Egoteko eta jarduteko ditugun moduak birpentsatu eta beste leku batean kokatzea. Baina, prest al gaude horretarako? Funtzionatzeko dugun logika arrazional eta produktibista alde batera utzi, eta denon erritmoak eta gaitasunak barne hartuko dituen egiteko moduak gorpuzteke prest al gaude? Horrek makalago joatea, edo joan nahi genuen lekura beharrean, beste nonbaitera eramango baldin bagaitu ere? Dugun botereari uko egin eta elkarbanatzeko prest gaude?



Baina nola landatu edo hozitu ditzakegu galdera egokiak, galdera ez hutsalak egiteko? Agian gakoa dikotomiak saihestean egon daiteke. Nabardura eta konplexutasunak besarkatzean. Metaforak adibidez, beste modu batera pentsatzeko lagungarriak izan daitezke, prozesu astistiko eta performatikoez beste leku batera eraman gaitzakete.

Guk argi daukagu bizikidetasunarena dela hurrengo pausoa, prest egon ala ez egin beharrekoa. Oso kontziente gara horrek esfortzu bat suposatuko digula, norma horretan eroso gaude-noi batez ere. **Eraldaketa sakona suposatuko digu eta oso garrantzitsua izango da eraldaketa hori posible izatea.** Bestela utopia batean geratzeko arriskua dago. Bizikidetasunaren diskurtsoa oso gauza ederra bezala jaso dezakegu baina, aurrera egiteko pauso errealak eta egingarriak zehaztu beharko dira edo, itxurazko gauza batzuetan bakarrik geratzen bagara, ezin izango dugu aurrera egin utopiarantz.

Begirada aldaketa honetaz gain, liburu-xka honetan, ideia guzti hauek herrien antolaketa fisikoarekin, espazialarekin lotzea proposatzen dugu. **Pertsona baten bizi itxaropenean kode genetikoa baino garrantzitsuagoa delako kode postala.** Baina espazioaren antolaketa helburu batzuei erantzuten die. Lortu nahi duzun helburuaren arabera, modu batean edo bestean antolatzen

duzu. Sortu ditzakegu erosotasun edo deserosotasun batzuk eta, hori guk erabaki dezakegu, ala ez?

Horretarako, herria antolatzeko helburu bat adostu behar dugu, eta guk proposatzen dugu hezitzailea izatea. Helburu horren arabera eraldatu baitezakegu herria. Nola izan ahal da herri bat hezitzailea? **Oso kontuz ibili behar dugu ez geratzeko teoria jasoegi batean edota planteamendu urrunegietan, utopikoegietan...** Bestela gauden lekuan geratzeko arriskua daukagu, ezinezkoa delakoan eraldaketa. Goazen nola abiatu gaitzen proposatzera.

Honen harira, prefigurazioaren kontzeptua azpimarratu nahi genuke. Prefigurazten duzuna ez da amaieran nahi duzuna, baina, bai da egiten ari zarena. Hor uztartzen dira bi munduak: errealitatea eta utopia. Hau ezinbestekoa da abiatu ahal izateko. Eraldaketa praktikatik eta kolektibotik, eta ez hainbeste diskurtsoetik egiteko, hain zuzen ere.

Jakinda, errealitatea agian ez dela hain erreal, baizik eta prefigurazio bat, aldez aurretik gure begiradara inposatuta, ohiturekin, komunikabideekin, heziketarekin, kulturarekin eta abar.

Sortzen zaigun zalantza da, ba ote ditugun beharrezko tresnak eraldaketa hauek sustatzeko. Benetan ba al ditugun, gertutasunetik, egunerokotasunetik, herri batean elkartzen diren errealitate guztietatik, ahots guztiak kontuan izanik, gure herriak berrantolatzeko tresnarik? Liburuxka honetan parte hartzea aldarrikatzen dugu horretarako oinarri oinarritzko tresna moduan.

Baina parte hartzea esaten dugunean, parte hartzeko kultura zehatz batetaz ari gara, begirada jakin batetik eraiki den parte-hartzeko kulturaz. Nola gerturatu gaitzake parte-hartzeko beste kultura batzuetara? Parte hartzearen paradigma aldaketa bat ekarri behar al dugu gure egiteko moduetara? Parte hartzea ekintzatik berplanteatu

dezakegu? Gure kultura horretarako izan dugun auzolanaren kultura zahar-berri batetik? Auzolan kultura honetatik badugu zer berreskuratu parte hartze prozesu eraldatzaileak planteatzerakoan? Beste kultura batzutan zelan gauzatzen dute parte hartzea?

Herritarren beharrak identifikatzeko orduan prozesu parte hartzaileak baino behaketa ez al da tresna egokiagoa? **Zer nahi dugun galdetzen digutenean, erantzunak ez al daude oso kutsatuta?** Behaketa objetibo baten bidez, herri batean egon daitezkeen behar ezberdinak identifikatu ahalko genituzke? Eta parte hartzea benetan elkarrekin egiteari begira jarri? Eta ez hainbeste iritziak ematera?

Komunitatea eraikitzeke elkarrekin egotea eta hortik ekitea izan daiteke gakoa? Pentsatzeko parte-hartze prozesuak baino elkar topatzeko une eta gune parte-hartzaileak? Sortzen dugun prozesu hori kolektiboa izatea?



Pasa gaitezke modu parte hartzaile edo kolektibo baten bizitzera? Pentsazetik egiterako pausoa ahalbideratuko duen parte hartzea eraiki dezakegu? Gure herrien eraikuntzarako parte-hartzearen paradigma berri bat; behetik gorakoa (ez alderantziz) eta harreman eta binkuluetatik eraikitakoa.

Beldur gara parte hartzearen paradigma aldaketa planteatzen dugunean, beste sistema itxi bat sortzen ez ote dugun. Eta hau ere baztertzaila izan ote daitekeen. Partaidetza aipatzen dugunean bizikidetzaren sentimendua edo afektua ere badelako. Zerbaiten parte sentitzea. Eta hor ere pentsa dezakegu nola haurrak, benetan, parte senti daitezkeen. **Horretarako entzunda eta kontuan hartuta (haien iritziak, ideiak, teoriak, pentsamenduak...) sentitzeko moduak aktibatu ditzakegu, konpromisoarekin eta haiek engainatu gabe.** Zintzotasuna, prestutasuna, konfiantza eta koherentzia izanik gakoak.

Horregatik, mekanismo guzti hauetan haurrei eta haurren egiteko moduei leku bat egitea proposatzen dugu liburuxkan. Haurtzaroren kultura, kultura eraldatzailea izan daitekeela sinesten dugulako. Baina oso kontziente gara haurtzaroren kulturako egiteko moduak, ez datozela helduon egiteko moduekin bat. Guk geuk ere gure azalean bizi izan dugu askotan kontrajarririk ere izan daitezkeela. Honetarako

ea prest ote gauden galdetzen diogu geure buruari. Eta uste dugu, gaitasuna badaukagula, baina alpergura ematen du, sormena eskatzen du, motelago joatea eskatzen du... eta askotan horrek prest ez egotera eramaten gaitu. **Gure konfort eremutik ateratzea eta egiteko moduak zalantzan jartzea eskatzen baitu.**

Aldaketarako gaitasun gehiago dugu prestutasuna baino? Zer behar dugu prest egoteko? Kontrato sozial bat adostea lagunduko liguke hau egikaritzen? Elkarlanerako konpromiso bat sortu dezakegu herri eragileen artean, enpresen artean, instituzioen artean, hau elkarrekin egiteko?

Liburuxka honetan hitzak, hitz polit mordo bat, bildu dugu. Hitzetatik haratago joan ahal izateko ordea, geure buruei galdetu beharko genieke ea prest gauden gure gorputzak deserosoagoa izango den leku batera eramateko. Prest ote gauden gure egiteko moduetatik mugitzeko. **Gure pribilegioei begiratu eta zalantzan jartzeko. Izan ere, desplazamendu honetarako prest ez baldin bagaude, hitzak bakarrik izaten jarraituko dute. ■**

“Honetarako ea prest ote gauden galdetzen diogu geure buruari.”



KOADERNO BILDUMA:

1



Haurren aisialdi parte-hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen

2



Nola sustatu haurren parte-hartzea ikuspegi feministatik

3



Nola egin udaleku parte-hartzailea

4



Nola egin ludoteka parte-hartzailea

5



Parkeak bizitzeko modu berriak

6



Jolasa: Eskubidea eta errealitatea

7



Arte hezkuntza eta prozesu kolaboratiboak